ORIOKO UDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

Eguna: 2024ko uztailaren 23a, asteartea.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30 Bukatzeko ordua: 20:35

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

ORIOKOUDALA

Udalbatzarraren akta

2024ko uztailaren 23ko

ezohiko bilkura. Orri-zk. 2

GAI-ZERRENDA

1. Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2024ko ekainaren 27ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2. Lehen onarpena ematea, egoki bada, 4/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditu-transferentzia modalitatean.

3. Lehen onarpena ematea, egoki bada, 5/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.

4. Lehen onarpena ematea, egoki bada, 1/2024 zenbakidun konpromiso-kredituen espedienteari,

5. Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketari.

6. Onartzea, egoki bada, udal-langileen eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien % 2ko igoera orokorra, eragina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.

7. Onartzea, egoki bada, baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak Orioko kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeko obrak kontratatzeko, prozedura ireki sinplifikatu bidez.

8. Onartzea, egoki bada, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen agiriak, Orioko hilerriko hiru panteoiren gaineko eskubideen adjudikazioa arautuko dutenak.

9. Onartzea, egoki bada, Andoni Alkorta Agirrek, Orioko Muskuilu Harria elkartearen izenean aurkeztutako mozioa, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontziak amarratzeko postuak emateko eta postu horiek erabiltzeko prozedura arautzen duen dekretuari buruzkoa.

10. Eskariak eta galderak.

BAT.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2024KO EKAINAREN 27KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta inork zirriborroari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.

BI.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 4/2024 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI, KREDITU-ALDAKETA MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 4/2024 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **69.218 euroko** zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **HIRUROGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HEMEZORTZI (69.218€) EURO.**

2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan

(astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

HIRU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 5/2024 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 5/2024 zenbakidun espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **1.171.567** euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu) guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 5/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **MILIOI BAT EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI (1.171.567 €) EURO.**

2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du, oro har, bere talde politikoa ados dagoela kredituak aldatzeko 5/2024 zenbakidun espedientearekin, udal-kanpineko igerileku berrietako inbertsioa finantzatzeari buruzko aurrekontu-partidetan izan ezik.

Ondoren, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du, bere talde politikoaren iritziz, udal-kanpineko igerileku berrietako inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-partidak guztiz beharrezkoak, egokiak eta arrazoizkoak direla. Horrez gain, aurreko legealdiaz geroztik sakon landutako inbertsio-proiektu bat da, eta, gainera, aipatutako obren lehen lizitazioa hutsik geratu zen, lizitatzailerik ez zegoelako.

Halaber, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak adierazi du 2022ko martxoan udal-kanpineko igerileku berriak egiteko obren bigarren lizitazioa aho batez onartu zutela udalbatzako kideek, eta hura ere esleitu gabe utzi behar izan zutela lizitatzailerik ez zegoelako.

Azkenik, adierazi du 2022ko irailean hirugarren saiakera bat egin zela aipatutako obren lizitazioa prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko, eta orduan ere udalbatza osatzen duten kideek aho batez onartu zutela.

Horrenbestez, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak esan du, hizketaldia amaitzeko, udal honetako EH-Bildu talde politikoak kanpineko igerileku berriak egiteko proiektu eta asmo berarekin jarraitzen duela aurrera.

Jarraian, Inaxio Alguacil zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du garrantzitsua dela azpimarratzea kredituak aldatzeko 5/2024 zenbakidun espediente honetan, udal-kanpineko igerileku berrien exekuzioa finantzatzeari buruzko aurrekontu-partidaz gain (536.000 €), beste 32 aurrekontu partida daudela (1.171.567 euro guztira), eta horietatik 681.000 euro diruzaintzako gerakinaren kargura direla, eta gainerakoa (490.567 €) diru-sarrera arrunt handiagoen eta kapital sarrera handiagoen kargura. Gauzak horrela, aurrekontu-partida asko ekipamendu eta azpiegitura publikoekin lotutakoak dira (argiteria publikoa, saneamendua, etab.), eta, azken batean, 5/2024 zenbakidun kreditu-aldaketaren espedientean jasotako 33 aurrekontu-partidek Orio herri hobea planifikatzeko eta gauzatzeko balioko dute.

Azkenik, Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta esan du udal-kanpineko igerileku berriak egiteko inbertsioa inbertsio estrategikoa dela, Udalaren diruzaintzako gerakinaren konturakoa, eta, izan ere, Orioko udalerriak industrialderik ez duenez, udalaren baliabide ekonomikoen iturri bakarra kanpina delako. Kanpina 8,5 hilabetez dago irekita, eta oso modu egokian funtzionatzen du udako 3 hiletan, eta gainerako 5,5 hiletan harmonizatzea lortu behar da.

LAU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 1/2024 ZENBAKIDUN KRONPOMISO-KREDITUEN ESPEDIENTEARI

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 1/2024 zenbakidun konpromiso-kredituak **1.072.000 euroko** zenbatekoa du. Hau da, 2024ko aurrekontuan 536.000

euro gaitzen dira, 2023ko diruzaintzako gerakinaren kargura, eta 2025eko aurrekontuan 536.000 euro gaitzen dira, 2024ko diruzaintzako gerakinaren kargura.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu) guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 1/2024 zenbakidun konpromiso-kredituen espedienteari. 2024ko aurrekontuei dagokie eta zenbateko hau du: **MILIOI BAT ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA (1.072.000€) EURO.**

2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituen espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela zuhurtziagatik eta arretaz jokatu behar delako udal-kanpineko igerileku berrietan inbertsioa finantzatzeari buruzko aurrekontu-partidak gaitzean; izan ere, 2024ko aurrekontuan 536.000 euro gaitzen dira, 2023ko diruzaintzako gerakinaren kargura, eta 2025eko aurrekontuan 536.000 euro gaitzen dira, 2024ko diruzaintzako gerakinaren kargura.

Jarraian, Inaxio Alguacil zinegotziak hartu du hitza, EH Bilduren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du bere talde politikoaren iritziz inbertsio estrategiko bat dela, itzulera zortzi urte inguruko epean izango duen inbertsioa.

Ondoren, Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du harrigarria dela EAJ-PNV talde politikoaren botoak izan duen aldaketa 2019-2023 legealditik (baiezko botoa) 2023-2027 legegintzaldi honetara (abstentzio botoa). Eta, aldi berean, nabarmendu du legez beharrezkoa den inbertsio bat dela, eta gai horren arloan indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duela; izan ere, udal-kanpineko igerilekuak leku ilun eta heze batean kokatuta daude, eta, beraz, gaur egun aurreikusita dagoen kokapenak betetzen du gaiaren arabera indarrean dagoen araudia, eta, horrez gain, zabaldu egiten du udal-kanpinaren denboraldi ofizial osoan erabiltzeko aukera.

Azkenik, Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du 2023-2027 udal-legegintzaldi honetan bere talde politikoak beste erronka eta ikuspegi batzuk dituela, eta, horrenbestez, bere talde politikoak zilegitasun osoa duela botoa aldatzeko.

BOST.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak Orioko Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketari buruzko proposamenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA aldaketa hori, interesdun guztiek Udalbatzarrean aurkez ditzaten beharrezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak, 15 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

SEIGARRENA.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN % 2KO IGOERA OROKORRA, ERAGINA 2024ko URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Jarraian, Udaleko Osoko Bilkurak Udaleko langileen ordainsarien % 2ko igoera orokorraren proposamenaren berri izan du, baita beren kargua dedikazio osoko edo partzialeko erregimenean betetzen duten tokiko korporazioko kideena ere. Eragina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du.

Hau da, EUDEL Euskal Udalen Elkarteak egindako gomendioa da % 2ko legezko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko. Ordainsari horietan sartzen dira Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan ezarritakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari begira, bai langileen kopuruari dagokionez, bai horien antzinatasunari dagokionez. Ordainsarien igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

% 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez (6.2 artikuluan araututa dago), Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuko datuak argitaratzeari itxaron

beharko zaio, eta ondoren onartuko da igoera hori aplikatzea, Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, zeina BOEn argitaratuko baita.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien % 2ko igoera orokorra, eragina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.

ZAZPI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ARGIRIAK ORIOKO KANPINEAN AISIALDIKO IGERILEKUA ETA UR-PARKEA ERAIKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ

Orioko kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeko obrak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen agirien berri izan du Udalbatzarrak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2024ko uztailaren 5ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu) guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak Orioko kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeko obrak kontratatzeko, prozedura ireki sinplifikatu bidez.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du bere talde politikoak honengatik eman duela ezezko botoa: beraiek ere jakitun dira udal-kanpina diru-sarrerak sortzen dituen iturria dela, eta, era berean, ados daude udal-kanpineko igerilekuak hobetzeko obrak egin behar direla; baina, hala ere, egia da bere talde politikoak benetako zalantzak dituela, udal-kanpinean erabiltzaileentzako plaza gehiago sortuko ez direnez, nola itzuliko den Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat eraikitzeko behar den milioi euroko inbertsioa.

Jarraian, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du udal-kanpineko zuzendaritzak dagoeneko eman dituela dagozkion azalpenak, Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat eraikitzeko beharra justifikatzeko. Horren guztiaren asmoa da kanpinaren desestazionalizazioa, eta, horrela, azken helburua da udal kanpineko erabiltzaileen okupazioa hilabete gehiagoz handitzea.

Ondoren, Inaxio Alguacil zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, adierazteko Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat eraikitzeko inbertsioa inbertsio estrategiko garrantzitsu bat dela.

Azkenik, Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat egitean eta udal-kanpineko taberna-supermerkatua hobetzeko obrak eginez denboraldi ofiziala desestazionalizatu nahi dela, eta azken helburua dela udal-kanpineko erabiltzaileen okupazioa hilabete gehiagoz handitzea. Eta hori guztia, horretarako egindako bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlanaren babesean egin da.

ZORTZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIAK, ORIOKO HILERRIKO HIRU PANTEOIREN GAINEKO EHORZKETA-ESKUBIDEEN ADJUDIKAZIOA ARAUTUKO DUTENAK.

Orioko hilerriko hiru panteoiren gaineko ehorzketa-eskubideen adjudikazioa arautuko duten baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen agirien berri izan du Udalbatzarrak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Tokiko Garapena batzordeak 2024ko uztailaren 19an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]

ONARTZEA baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen agiriak, Orioko hilerriko hiru panteoiren gaineko ehorzketa-eskubideen adjudikazioa arautuko dutenak.

BEDERATZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ANDONI ALKORTA AGIRREK ORIOKO "MUSKUILU HARRIA" ELKARTEAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUETAN ONTZIAK AMARRATZEKO POSTUAK EMATEKO ETA POSTU HORIEK ERABILTZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak Andoni Alkorta Agirrek Orioko Muskuilu Harria elkartearen izenean aurkeztutako mozioaren berri izan du. Mozioa Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontziak amarratzeko postuak emateko eta postu horiek erabiltzeko prozedura arautzeko asmoa duen dekretuari buruzkoa da, eta hau dio:

"Euskal Herria itsasoarekin estu-estu lotuta dago. Mendeetan zehar, euskal herritarrak itsasoari begira eta itsasoari emanda bizi izan gara. Harreman hori ez da ofizio bat sortu eta horretan jardutera mugatzen; aitzitik, euskal gizarte osoaren bizitza baldintzatu du, baita beste herrialde batzuekiko harremanak ere. Beste era batera esanda, euskaldunok aspalditik egin dugu itsasoa lantoki, baina itsasoarekin lotutako jarduera ez da inoiz sektore ekonomiko hutsa izatera mugatu. Balio kulturala izan da, euskaldunon ondare kulturalaren gordailua. Eta agerikoa da portuek eta kaiek kultur transmisiorako espazio gisa izan duten funtzioa, itsas munduko tradizioek eta ohiturek iraun egin dutelako haietan.

Argi dago Euskadiko portuen errealitatea erabat aldatu dela azken urteotan; lehen, arrantza profesionaleko eta kabotajeko itsasontziek sortzen zuten ia jarduera guztia. Jarduera horiek nabarmen murriztu dira portu gehienetan, eta beste behar batzuk sortu dira, hala nola aisiako eta kiroleko ontziak.

Eusko Jaurlaritzako Portuen Sailak urte asko daramatza aldaketa horrek sortu dituen beharrak birbideratzen saiatzen, jakitun baita bera dela amarratzeak eta ainguratzeak ere behar dituen sektore baten beharrak asetzearen arduraduna.

Arrantza-flota izugarri murriztu da ia portu guztietan, eta horietako askotan aisialdiko ontzientzako guneak sortu dira.

Portuen Sailak badaki kostaldeko zona bakoitzean amarratzeen zer eskaera dagoen eta zenbat eskaini ditzakeen portu bakoitzean. Beraz, uste dugu haren ardura dela modu egokian planifikatzea eta une bakoitzean dauden beharrak asetzea.

Orioko Kirol Portua 2007an jarri zen martxan, eta indarrean zegoen LOTUNEAK ERABILTZEKO BAIMENEN ERREGELAMENDUA, GARRAIO ETA HERRI LAN SAILBURUAREN 2004KO APIRILAREN 20KO AGINDUAN emana. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisia-ontzien titularrei lotuneak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen zen.

2004ko APIRILAREN 20ko AGINDUAK, lotuneak erabiltzeko baimenei buruzko araudian, honako hau dio:

8. ARTIKULUA

Hautaketa-prozedura. (a) paragrafoa.- ***Deialdia argitaratzen den egunean portuan dauden erabiltzaileek lehentasuna izango dute, eta ordura arte zuten lotune-mota errespetatuko zaie.***

Oriotar askok ontzia erosi genuen, amarralekuak hutsik zeudelako, eta araudia ezagututa, bagenekielako ondo portatuz gero, amarralekua ziurtatuta geneukala etorkizunari begira.

Ondoren, 2017ko urriaren 19ko 5330 AGINDUA garatu zuten, eta ikusi da hainbat kexa, kereila judizial, kezka, ezinegona eta abar eragin dituela. Bat-batean 2004ko apirilaren 20ko Aginduaren 8. artikuluak zioena kendu zuten, eta hor ikusten dira emaitzak.

2017ko urriaren 19ko Agindua ezarri nahi izan den kirol-portuetan sortutako gatazkak aditzera ematen du agindu horretako puntu gatazkatsuak berrikusi egin behar direla, eta erabiltzaileekin nolabaiteko adostasunera heldu, 2004ko aginduak dioena ere ez baitu aintzat hartzen: JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA HOBETZEN ETA ERABILTZAILEEN INTERESAK BABESTEN LAGUNTZEA. Horretarako, amarratzaileen elkarteek elkarrizketa eskatu dute.

Oso argi utzi behar da, eskaria lehendik dauden amarralekuen eskaintza baino handiagoa bada, arazoa sortuta dagoela: ados ez dagoen jendea, kexak, demandak eta abar.

Lehenbailehen konponbide aringarriak aztertu beharko lirateke (portuz portu), arazoa minimizatzeko edo, gutxienez, txikitzeko. Horretarako, elkarrizketa eskatzen dugu.

Horregatik guztiagatik, Orioko Udalbatzarrak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusteko eta egokitzeko izapideak abian jartzea, sortutako gatazkaren oinarri diren irizpideak zuzentzeko.

1.1.- Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzinatasun-irizpide bat egotea, eta lehentasuna ematea itsas kostaldeko ondare materiala eta ez-materiala berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei.

2.- Abian diren edo aurreikusita dauden amarralekuak esleitzeko prozesuak behin-behinean geldiaraztea, eta eragindako amarralekuen elkarteekin hitz egiten hastea, egoera bideratzeko.

3.- Garraio eta Herri Lan Sailaren helburuetako bat portuak sustatzea eta kirol-nautikaren sektorea suspertzea da, eta, horretarako, uste dugu portutik gertu dauden herriei nolabaiteko lehentasuna ematea komeni dela.

4.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta parte-hartzean oinarritu dadila, EKPren portuak dauden udalerriekin lankidetzan. Horretarako, Portuko Udal Kontseiluak sortuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 1. kapituluko 4. artikuluan zehazten den bezala.

5.- Mozio honen onarpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio"

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Andoni Alkorta Agirrek Orioko "Muskuilu Harria" elkartearen izenean aurkeztutako mozioa, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontziak amarratzeko postuak emateko eta postu horiek erabiltzeko prozedura arautu nahi duen dekretuari buruzkoa, Udalbatzarraren erabaki honen azalpen-zatian adierazitako termino beretan.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Olatz Santamaria lehen alkateordeak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du bere talde politikoa bat datorrela Andoni Alkorta Agirrek, Orioko "Muskuilu Harria" elkartearen izenean eta hura ordezkatuz, aurkeztutako mozioaren edukiarekin. Izan ere, duela 2 urte antzeko gai bat eztabaidatu zen udalbatzarrean, eta EH-Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOEren aldeko botoekin onartu zen. Hori dela eta, pozik dago aipatutako mozioa udalbatzarra osatzen duten kide eta bertaratu guztiek aho batez onartu dutelako.

Era berean, Olatz Santamaria zinegotziak adierazi du EH-Bildu talde politikoak bere egiten duela Orioko "Muskuilu Harria" elkarteak aurkeztutako eskaera aurrera eramateko eta edozein forotara eramateko udalaren konpromisoa.

Azkenik, Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du arazoak sortu direla ikusi denean eta Orioko "Muskuilu Harria" elkarteari entzun ondoren, bere talde politikoak botoa aldatu duela, eta, ondorioz, baiezko botoa eman duela erreferentziako mozioa onartzeko, eta azpimarratu du beharrezkoa dela arlo horretan aplikatu beharreko araudi berri bat finkatzea eta zehaztea.

10. ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zortziak eta hogeita hamabost direla. Nik, Udaleko idazkariak, **ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.**

ALKATE-PRESIDENTEA, **IDAZKARIA,**